

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

Nafarroako Gobernuak ekitaldi berriak prestatu ditu datorren asterako, ekainaren 25etik uztailaren 1era

Astelehena, 2018.eko ekainak 25

Nafarroako Gobernuak jarduera berriak antolatu ditu ekainaren 25tik uztailaren 1era bitarteko [asterako](#):

Nafarroako Museoan teknika artistiko japoniar baten inguruko hitzaldia goatzeko aukera izanen da, "Urrezko makie-an egindako teknika tradizionala". Lan egiteko modu honetan Japoneko Altxor Nazional Bizia den Kazumi Murose maisuak eskainiko du konferentzia.

Nafarroako Museoan ikus daitekeen naban estiloetako lan bat.

Zinemari dagokionez, eskaintza hirukoitza dugu Nafarroako Filmotekan: ostegunean "Fiesta de San Fermín", "Sergio" eta "Pioneras III" pasako dira eta ortziralean berriz, Arnaud Larrieu eta Jean-Marie Larrieu zuzendarien "Los últimos días del mundo".

Era berean KULTUR egitaraua aurrera darrai aste honetan. Ostegunean, Góspel Alaikapela Abesbatza arituko da Uxueko Udaletzeko Plazan. Bitartean, ortziralean, Kirolak taldeak, dantza garaikide saioa eskainiko du Gareseko Mena Plazan. Larunbatean berriz, Lodosako Kultur Etxean izango da dantzaz goatzeko aukera "Danzas para una exposición" emanaldiaren eskutik. Bukatzeko, Lodosan bertan, Perón Kontserba lantegia ezagutzeko eta dastatzeko ibilbidea prestatu da.

Formakuntzari dagokionez, badugu eskaintza bikoitza Nafarroako Liburutegian: Regina Salcedoren sorkuntza eta idazketa tailerra asteazkenez eta Origami teknika ikasteko aukera astelehen, asteazken, ostegun eta ostiralean. Bere aldetik, Nafarroako Filmotekan, Super 8 mm teknikan grabatzen ikasteko tailerra izango da astelehen eta ostiral bitartean. Nafarroako Errege Artxibo Nagusian, aldiz, Think Tank laborategiaren hirugarren edizioa izango da Laura Freixas idazlearen eskutik eta "(Des)Berdintasuna Kulturean" izenburupean. Huarte Zentroan "Artxiboa Plazara!" proposamena eta Komisariotzaren inguruko ikerkerketak garatzeko egoitza izango dira. Bukatzeko, Lizarran, Karlismoaren Museoan sortu den Escape Room-a bizitzeko aukera zabalik

dago: “Escape room: Toisonen lapurketa”.

Erakusketen alorrean, Huarte Zentroan, VAKA proiektua ezagutzeko aukera dago. Nafarroako Museoak “José Latova. Argazkigintza arkeologikoan 40 urtez” erakusketa eskaintzen du. Oteiza Museoak “Interpretazioak” programarekin jarraituko du, Imanol Marrodanek Alzuza Zentroan sortu duen lanarekin: “Arma isilak gerra lasaietarako”. Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak “Futbola Nafarroan” erakusketa-txikia hartuko du eta bukatzeko, Nafarroako artxiboan, “Pablo Sarasate-Alberto Huarte: adiskidetasun baten testigantzak” erakusketa izango da ikusgai.

Azkenik, aste honetan, Iruñeko katedraleko klaustroan egiten ari diren lanak ezagutzeko ateraldiak antolatuko dira berriz ere.

[Esteka honetan](#) duzu kultur programazio osoa: